


Ihesi

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Dani Blanco

Euskal Herria ezagutuz:
Sara (Lapurdi)

Larrun, Larrun...

Zapaltzen duen zango bakoitzak beherantz pusatzen balu mendia, eta milimetro bat galtzen balu urratseko, Larrun lur azpiratua litzateke jadanik. Baina oraino gora eder ageri da, merezi du bisitaren egitea.

EZ ZUEN Sarako apez berriak deusik konprenitzen. Etxalde batean hiru edo lau mutil ikusten zituen, edo berdin bost, seikoak ere baziren. Alta, laboreen merkatua ez zen hoinbertze buru mantentzeko heinetan. Justu-justuan bizi ziren laborariak ondoko herrietan. Eta Saran etxalde batzuetan behi-buru bezainbat mutil bazen. Ez zitekeen. Azken afariko mirariak gertatzen ziren herri hartan.

1993an Espainia delakoaren eta auzo duen Frantzia harroaren mugak guziz ireki ziren artio, egunez bezainbat lan egiten zen gauez Sara inguruetan. Baina urte horretan finitu ziren istorioak; kargamentu galtze zorigaitzeko, gaua Anttonen Bentatik Donibanerainoko bidean iragan ilargi berriko egunak, udan gau goxoak bai baina sobera labur eta nahiago negu gau hotz bustiak, eta guarden eskuetan erori kamaradak, hilak ere bai... Orain gaueko loak hartua badu ere herria, egun ere seinale da Sara kontrabandisten herri izana dela. Ez etxe ederrengatik, ez xenda ttipiengatik. Mintzoak du ageri. Guarden eta salatarien beldur bizi zenak ez du hitz-erdi bat debaldetan erranen, eta dion hitz-erdi hori

ere ongi neurtua. Ez du bere burua salduko. Saratarrak badaki nora nondik joaten den, eta zer nola erran daitekeen.

Gizonak izaiten ziren karga eramaile, pisu handiak erabiltzen zituzten bizkarrean. Bidoiak zirelarik hogeita hamabortz kilo izaiten zituzten bederen. Eta hiru lagun artean eramaten zituzten bi. Ez zuen bizkarrak guti sufritzen. Eta lorik ezin egin gainera. Baina emaztekiek ere ez zuten lo

1993an Espainia delakoaren eta auzo duen Frantzia harroaren mugak guziz ireki ziren artio, egunez bezainbat lan egiten zen gauez Sara inguruetan

gehiago egiten. Noiznahi entzuten zen ate-soinua, kontrabandistaren bat babes eske, edo zerbait jatera heldu indarren hartzeko, gau oro izaiten ziren halakoak, eta batzuetan gauean behin baino gehiagotan. Guardek ere joko zuten atean, eta haiek ere ohildu behar bi gezur

erranik. Edo eltzekaria bazuela eta nahi zutenez eskaini, senarra eta lagunak pasatuak baldin baziren orduko, ez zen guardak sukaldean atxikitzea bezalakorik.

Urte luzez xaguxahar anitz ibili da Sarako mendi muino eta ordokietan, orain bide arrasto zahar horietan itxiturak eginak dira, jendeak lurak erosiak eta hetsiak ditu. Beraz ez daitezke bideak lehen bezala kurri. Baina zangoz ez daitekeena egin daiteke begiz, eta Larruneko maldetarik apreziatzen ahal da non gaindi ibiliko ziren gaueko iheslari haiek. Larrun inguru osoko zaindaria baita.

Plazatik parti

Sarako herriko plazatik Larruneko kaskora joan-jina hamazazpi kilometro egiten dute. Zango sagarrrak berotzeko bidea da, baina urrats lasaian nornahik egin dezake. Sarako plazan plantatu, eta *carpe diem* mezuak ematen ditu eliz hormak: "Oren guziek dute gizona kolpatzen, azkenak du hobirat igortzen". Ikus daiteke eliza gorputz zahar eta kasko berrikoa dela. Duela lauzpabost urte su batek hartu baitzuen kanpandorra, eta zikoinak eskapatu ziren, baina





Sara erdigunea. Hemendik Larrunen kaskorako joan-jina hamazazpi kilometro egiten dute.

habiak, eta zurtoin eta habeak erre ziren. Eliza soildua gelditu zen. Eta hala pasa zituen bi negu. Gorriti eskultoreak bizi berria eman zien egur zahar erre haiei.

Herriko Etxean bada bat ikusgai eskaileren artean.

Plazatik mendebalderako bidea da hartu behar, GR-10 delakoa, Larrunen bizkar konkortuak era-

kusten duen nora-bidean. GR-10 hori segitzea aski da, lehenik behe-rantz, eta Portun erreka jotzeraino heldu da. Erreka gaintetik jauzi, eta handik ehun-berrehun metrora ipar-mendebalderantz da pausoa zuzendu behar. Bide horri jarraiki behar zaio, berak bide berriraino eramanez. Eta



Hemendik abiatzen da Larrunerako trenak. Frantsesen artean trenak ezagutarazi du mendia, hain zuzen ere.

San Inazio lepoko geltokia agertuko da bidearen buruan. Beroketa ttipi bat izan da, etapa orain hasiko da zinez, Larruneko maldak aski pikoak baitira. (Mendizale kartsuentzat, edo hats berri bila doazenentzat aholkua: hobe da ez uda betean joaitea, ekainetik buruila arte turista folkloriko frantses andana bat izaten baita, eta Ipar Euskal Herrian eta Frantzia besta egun diren astegunetan ere hobe da Larrunera ez hurbiltzea. Mukuru izaten da jendez, ez du mendia ere iduri. Egunez milako bat igaten da trenez goraino, halako kontrabandorik ez da sekula izan...).

Hiru iturriak

Larrunek, udako egun ederretan, Parisen eite handiagoko du Sararena baino. Trenak ezagutarazi du frantsesen artean, eta egun oro jiten da jende berria. Baina hori hala izanik ere, meritu bat aitortu behar zaio. Trenari esker, adinekoak, eta elbarrak ere, mendira igan daitezke, bestela debekatua zaien lekura. Aski kario da, igan eta jautsi hama-bortz bat euroren gastua ateratzen



da, baina jendeak errazkiago jotzen du sakelara zangoetara baino. Alta, trenak bere xarma baduela aitorturik ere, Larrun mendia, politena, pausoa berdintzea da.

Pauso bidea hautatu duenak tren geltoki gibeletik doan oinezko bidea du hartu behar. Zuhaitzen artetik egiten dira lehen metroak, eta hostoen artetik trena azalduko da mandoak bezala karga bizkarraren harturik. Gora fite hasten da, eta tragoa ere galdegiten du gorputzak, hala du bere izena hartua bide zati horrek: Hiru Iturriak. Doanak jakinen du zergatik.

Garo, gaztaina, pago... eta gure zango, beti gora doa bidea, behe-tik gora. Baina Larruneko maldek bi zati dituzte, erdian badute halako pausaleku gisako bat, hats eta ur berritzeko. Hara buruz, beti, eta ez galtzeko pistan, GR-10 bidelagunari zaio segitu behar. Momentu batez erreka baten kantua sentituko dugu beharrietan, ur pasabide mehe batetik hurbiltzen ariko gara, eta hura gainetik trabeskatutik mendebalderantz segitu behar da. Bidegurutze batek dudan emanen gaitu, eta GR-10

lagun fidela bazter utziko dugu. Orientazio oneko jendeak aise asma lezake, baina buruan GPSrik ez dutenentzat, hegoaldea da hartu behar den norabidea. Eta hala, emeki-emeki, Larrunen gandra begien artera azaltzen ariko da. Handik goiti ez da erran beharrik ere nora buruz den hartu behar, trenbide zaharrak egur ohol

Larrunek, udako egun ederretan, Parisen eite handiagoa du Sararena baino

pisuak gurutzatuak ditu lurreen burdinbideen erdian, eta horietan eskailera bat ikusten ahal da, eta hala igan, azken urratsak neurtuz. Ez da begiek uste bezain fite arribatzen gor-goraino, baina azkenean tontorra bera hasten da zangoetara hurbiltzen.

Mendi punta komertziala

Souvenirs, Liqueurs, Pastis... Ez da mendi eder batek merezi lukeen

azken argazkia. Komertziorako ustiatua da mendi gaina, eta xarma guzia galtzen du begietara, baina hari sobera so egin gabe hobe da burua gibelera itzultzea. Halako paisaiarik! Lapurdiko kostalde osoa, eta Gipuzkoako itsas bazterren zati handiena begietara sartzen dira Larrun gainetik. Zeru argiko eguna bada, ez da halako talaia-rik Euskal Herri osoan, eta lainoak bista armiarma saretzen badu, Artzeren poemak kontsola lezake bisitaria: "Maite ditut maite gure bazterrak, lanbroak ezkutatzen dizkidanean..."

Begiak, sabela, aseak direlarik, behera bidea aise egiten da. Lehen-go bera da, baina Newtonen sagar-rrak laguntzen du, eta kilometro kopuru bera egin behar bada ere denbora erdian urra daiteke bide osoa. Gainera inguru osoa ikusiz doa pausoa aitzina, eta Sara aldeko mendi apalagoak ere panoramika polita osatzen dute: Zugarramurdi aldea, Etxalar bidea, Senpere inguru-ua... Kontrabandistek begiak hetsirik ere egingen zituzketen bideak, baina merezi du begiak zabalik eramaita. Bideak on dagizuela. ■